



EBAZPENA (Esp.: 01/2012, NATURGAS ESKLUSIBITATEA)

Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, mahaikidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, mahaikidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Bilbon, 2012ko urriaren 11n.

AURKIBIDEA:

I. AURREKARIAK.....	¡Error! Marcador no definido.
II.- EGITATE FROGATUAK.....	¡Error! Marcador no definido.
A.- ENPRESAK.....	¡Error! Marcador no definido.
B.- UKITUTAKO MERKATUA.....	¡Error! Marcador no definido.
a. Gas-banaketaren merkatua.....	¡Error! Marcador no definido.
b. Banakako instalazioak eta instalazio kolektiboak egiteko eta instalazio horiek kontrolatzeko eta mantentzeko lanak egiteko merkatua.....	¡Error! Marcador no definido.
III.- ZUZENBIDE-OINARRIAK.....	¡Error! Marcador no definido.
IV. EBATZI DU:.....	¡Error! Marcador no definido.
ERANSKINA.....	¡Error! Marcador no definido.
NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUren KONPROMISOEN PROPOSAMENA ..	¡Error! Marcador no definido.
LEHENENGO KONPROMISOA.....	¡Error! Marcador no definido.
15. baldintza orokorra ezabatzea.....	¡Error! Marcador no definido.
BIGARREN KONPROMISOA.....	¡Error! Marcador no definido.
Etorkizunean, ez sartzea eskusibitate-klausularik, NATURGASEk GUE SAREkin eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLrekin izenpetutako zerbitzuen errentamendu-kontratuen 1. eranskinen "Beste baldintza batzuk" atalean jasotako antzekorik. .	¡Error! Marcador no definido.
HIRUGARREN KONPROMISOA.....	¡Error! Marcador no definido.
Kontratuei dagokien gehigarria aurkeztea, hiru hileko epean, gehienez ere.....	¡Error! Marcador no definido.
LAUGARREN KONPROMISOA.....	¡Error! Marcador no definido.
Konpromisoak lotesleak dira NATURGASentzat eta HIDROCANTÁBRICO SOLUCIONES COMERCIALES SLrentzat.....	¡Error! Marcador no definido.

Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), goian adierazi bezala osatuta eta María Pilar CANEDO ARRILLAGA andrea txostengilea izanik, ebazpen hau eman du NATURGAS ESKLUSIBITATEA 01/2012



zehapen-espeditan. Espediente hori, hain zuzen ere, desegindako Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUK ustez lehia mugatzeko egindako jardunbideen ondorioz.

I. AURREKARIAK

1.- 2011ko maiatzaren 27an, desegindako LDEZek gertakari hauen berri izan zuen:

NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUK zerbitzuen errentamendu-kontratuak izenpetu zituen GUE SA eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SL enpresekin. Kontratu horietan, baldintza hau jasotzen da 1. eranskineko “Beste baldintza batzuk” epigrafean:

“4. Eskaintzan, eskaintza-egileak argi adieraziko du konpromisoa hartzen duela **zerbitzu horietan eskusibotasunez** lan egiteko Naturgas Energía, hc energía edo/eta EDP taldeko enpresekin, enpresa horiek gaur egun duten jardun-eremuan. Baldintza hori izan ezean, eskaintza ez da onartuko. Etorkezuean aurreko sozietateen eskumeneko sozietateetako batekin hemen jaso ez dugun jardueraren batean lan egiten badu, oniritzia eskatu beharko dio Naturgas Energiari, eskaintza aurkeztu edo kontratazioa egin aurretik. Hori ez egiteak kontratua desegitea ekar dezake¹.”

2.- 2011ko maiatzaren 31n, LDEZek eskura zuen dokumentazioaren kopia eta ohar labur bat igorri zizkion Lehiaren Batzorde Nazionalari (LBN), otsailaren 21eko 1/2002 Legeak, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzekoak, 2.1 artikuluan ezartzen duenari jarraituz. Ohar horren bidez, adierazi zion lehiaren defentsarako euskal organoek espediente hori izapidetzeko eskumena dutela (36-39 folioak).

2011ko ekainaren 9an, LDEZek Lehiaren Batzorde Nazionalaren erantzuna jaso zuen. Lehiaren Batzorde Nazionalak eskatu zion informazio gehiago biltzeko eginbideak egiteko, ez baitzuen informazio nahikoa organo eskudunaren gainean erabaki bat hartzeko (40-41 folioak).

¹ Jatorrizkoan, letra lodian eta azpimarratuta.



Eginbide horiek egin ostean (*44-308 folioak*), 2011ko irailaren 7an, LDEZek eskura zuen dokumentazioaren kopia eta ohar labur bat igorri zizkion Lehiaren Batzorde Nazionalari, eta, berriro ere, adierazi zion lehiaren defentsarako euskal organoek espediente hori izapidetzeko eskumena dutela (*309-313 folioak*). 2011ko irailaren 22an, Lehiaren Batzorde Nazionalak onartu egin zuen euskal organoek eskumena dutela (*314-315 folioak*).

3.- 2011ko urriaren 3an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak ebazpen bat eman eta erabaki zuen NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUren aurkako zehapen-espedientea hastea, Lehia Babesteko Legean debekatzen diren lehiaren aurkako jardunbideak egiteagatik, eta zehazpen-espedientearen instruktorea eta idazkaria izendatu zituen.

Ebazpen horren arabera, hauexek dira espediente horretako interesdunak:

- NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAU
- LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA

2011ko urriaren 4an jakinarazi zitzairen ebazpen hori interesdunei (*321-328 folioak*).

4.- 2011ko azaroaren 17an, LDEZek idazki bat jaso zuen, NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUk izenpetutakoa. Idazki horren bidez, sozietate horrek eskatu zuen zehapen-prozedura hitzarmen bidez amaitzeko eginbideak hasteko.

Instruktoreak eskaera hori onartu zuen, 2011ko urriaren 18ko Probidentziaren bidez. Probidentzia horrek, gainera, eten egin zuen zehapen-prozeduraren gehieneko epearen zenbaketa, harik eta prozedura hitzarmen bidez amaitu arte.

Halaber, hilabeteko epea eman zion eskatzaileari konpromisoen proposamena aurkezteko.

5.- 2011ko abenduaren 21ean, LDEZek idazki bat jaso zuen, NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUrena. Idazki horrekin



batera, sozietateak konpromisoen proposamen hau bidali zuen (lehenengo konpromisoak):

LEHENENGO KONPROMISOA.

15. baldintza orokorra ezabatzea.

Lehenengo konpromiso gisa proposatzen dugu 15. baldintza orokorra erabat ezabatzea. Horrela, baldintza horrek gaur egun duen edukiaren eta kontratu berriei aplikatzekoak diren baldintza partikularren arteko balizko kontraesanak amaituko dira.

Ordezkatuak konpromisoa hartu du ez duela baldintza orokor hori sartuko Euskal Autonomia Erkidegoan izenpetzen dituen kontratuetan; zehazki, gas-instalazioak ikuskatzeko zerbitzuak —espediente honen aztergai direnak— ematearekin lotutako kontratuetan.

BIGARREN KONPROMISOA.

Ordezkatuak konpromisoa hartu du LDEZi kontratu berrientzako gehigarri bat aurkezteko, aipatutako aldaketa izango duena. Gehigarri hori HIDROCANTÁBRICO SOLUCIONES COMERCIALES Y GUE SAK eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLk izenpetuko dute, eta ordezkatuak, gehienez ere, sei hilabeteko epean aurkeztu beharko du, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita; izan ere, ordezkatuak proposatutako konpromisoak oinarri hartuta, auzitegi horrek ebazpena emango du prozedura hau hitzarmen bidez amaitzeko.”

6.- 2011ko abenduaren 21ean, LDEZek konpromisoen proposamena bidali zion desegindako Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari (LDEA), proposamen horren berri izan zezan, bai eta Lehiaren Batzorde Nazionalari ere, espediente horretako interesduna baitzen, egoki zeritzen alegazioak egin zitzaizkion. LDEZek ez zuen alegaziorik jaso.

7.- 2012ko urtarrilaren 19an, espedientearen instruktoreak ebazpen-proposamena eman zuen, eta ebazpen-proposamen horretan adierazi zuen NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUK aurkeztutako konpromisoek hautemandako lehia-arazoak konpontzen zituztela. Horren ildotik, LDEAri eskatu zion ebazpena emateko, eta, ebazpen horren bidez, aurkeztutako proposamenak onartzeko eta zehapen-prozedura hitzarmen bidez amaitzeko.



8.- LDEAK 2012ko urtarrilaren 20an jaso zuen hitzarmen bidez amaitzeko proposamen-ebazpen hori.

9.- 2012ko maiatzaren 22an, LDEAK behar bezala aztertu zituen NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUK proposatu zituen hitzarmen bidez amaitzeko konpromisoak, eta horri buruzko probidentzia bat eman zuen. Probidentzia horretan, eskatu zuen zehapen-prozedura hitzarmen bidez amaitze aldera beste konpromisoen proposamen bat aurkezteko, eta akats formal batzuk konpontzeko eta oinarrizko kontu batzuk argitzeko.

10.- 2012ko ekainaren 29an, Ekonomia eta Ogasun Saileko erregistroan idazki bat sartu zen, NATURGAS ENERGIA DISTRIBUCION SAUrena eta HIDROCANTABRICO SOLUCIONES COMERCIALES Sarena.

Idazki horretan, aipatu berri dugun eskakizuna bete zen; hau da, beste konpromiso-proposamen bat aurkeztu zuten zehapen-prozedura hitzarmen bidez amaitzeko. Proposamen hori ebazpen honetan jaso dugu, ERANSKIN BAKAR gisa (konpromiso berriak).

11.- Lehiaren Batzorde Nazionalari konpromiso-proposamen horren berri eman zitzaion, zehapen-prozedura horretako interesduna baitzen. 2012ko uztailaren 13an, zenbait alegazio aurkeztu zituen. Laburbilduta jaso ditugu hemen.

- Aurkeztutako konpromiso berriak eraginkorrak direla eta behar bezala gauzatuko direla bermatze aldera, ezinbestekoa da konpromisoak argitara ematea. Horretarako, Naturgasen webgunean argitara daitezke, hilabeteko epean, zehapen-prozedura hitzarmen bidez amaitzen duen ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, eta webgunean egon beharko du egoki iritzitako epean: urtebetez, gutxienez.

- Halaber, Lehiaren Batzorde Nazionalak dioenez, komeni da NATURGASek ohar labur bat argitaratzea eskualdeko prentsan, jakinarazteko prozedura hitzarmen bidez amaitu dela eta hartutako konpromisoak webgunean kontsulta daitezkeela.



12.- Lehiaren Euskal Kontseiluak 2012ko irailaren 11n egindako bileran eztabaidatu eta ebatzi zuen espedientea.

13.- Hauek dira zehapen-prozedurako interesdunak:

- NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAU
- LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA

II.- EGITATE FROGATUAK

14.- NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUK zerbitzuen errentamendu-kontratuak izenpetu ditu GUE SA eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SL enpresekin. Errentamendu-kontratu horien xedea da NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUK aldizkako ikuskapen-zerbitzuak kontratatzea, bai eta aurretiko probak egiteko zerbitzuak, gasa sartu eta zerbitzuan jartzeko zerbitzuak eta programatutako laguntza teknikoa emateko zerbitzuak ere. GUE SArekin eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLrekin izenpetutako kontratuetan, honela jasotzen da xede hori, hitzez hitz (3-35 folioak)²:

- Gasa jasotzen duten instalazioen administrazio-kudeaketarako eta ikuskapenerako zerbitzua: instalazioak jartzea, aurretiko probak egitea, zerbitzuan jartzea eta geroko aldaketak eta handitze-lanak egitea.
- Gasa jasotzen duten instalazioen administrazio-kudeaketarako eta aldizkako ikuskapenerako zerbitzua.
- FUNCIONA³, gasa jasotzen duten instalazioak, etxerakoak, komertzialak eta kolektiboak, mantentzeko lanen kontratuen administrazio- eta merkataritza-kudeaketarako zerbitzua.

Errentamendu-kontratuen 1. eranskinean eta prezio-tauletan, hauxe zehazten da, besteak beste:

- Programatutako Laguntza Teknikoaren Zerbitzuak ekintza hauek egingo ditu, besteak beste: hornidura etetea, gas-kontagailua aldatzea hodiak aldatu gabe, hainbat motatako egiaztapenak egitea eta eteteak/loturak (ez ordaintzeak).

² Hona hemen instalazioak ebazpen hau eman aurretik indarrean dagoen arautegiaren arabera aldatzeari edo handitzeari buruzko aholkuak jasotzen dituen webgunea: (http://www.naturgasenergia.com/uploads/pdf/condiciones2_es.pdf). (Ebazpenean aipatzen diren webgune guztietan, 2012ko urriaren 11n egin zen azken kontsulta)

³ Naturgas Energiak eskaintzen duen ikuskapen- eta mantentze-zerbitzua. Web-orrialde honetan agertzen dira NATURGASek eskaintzen dituen zerbitzuak: <http://www.naturgasenergia.com/hogar/funciona>.



- Zerbitzu horien zerbitzu osagarriak ematea (*hornidura berriekin edo daudenak handitzeko lanekin lotutako jarduerak, aldizkako ikuskapenak eta Programatutako Laguntza Teknikoaren Zerbitzua*). Zerbitzu horiek honetan dautza: batetik, enpresa instalatzaileari aholkuak ematean eta gasa jasoko duten instalazio berriak taxutzean, eta, bestetik, administrazio-kudeaketa egitean —administrazio-kudeaketaren barruan ez da kudeaketa teknikoa sartuko, kudeaketa teknikoa beste agente batek egingo baitu—. Administrazio-kudeaketari dagokio lan-aginduak eta beharrezko dokumentuak kontrolatzea, aldizkako ikuskapen-ekintzenak, hornidura berrien eta horniduren aldaketen ikuskapenenak, laguntza teknikoak edo gasa jasotzen duten instalazioekin lotutako beste zerbitzuenak.

Horretaz gainera, 1. eranskineko “Beste baldintza batzuk” epigrafeak baldintza hau jasotzen du:

“4. Eskaintzan, eskaintza-egileak argi adieraziko du konpromisoa hartzen duela **zerbitzu horietan eskusibotasunez lan egiteko** Naturgas Energía, hc energía edo/eta EDP taldeko enpresekin, enpresa horiek gaur egun duten jardun-eremuan. Baldintza hori izan ezean, eskaintza ez da onartuko. Etorkizunean aurreko sozietateen eskumeneko sozietateetako batekin hemen jaso ez dugun jardueraren batean lan egiten badu, oniritzia eskatu beharko dio Naturgas Energía-ri, eskaintza aurkeztu edo kontratazioa egin aurretik. Hori ez egiteak kontratua desegitea ekar dezake.”

A.- ENPRESAK

15.- EAEn, bi merkataritza-sozietatek dute baimena gas naturala kontsumo-puntuetan jartzea xede duten banaketa-instalazioak eraikitzeko, erabiltzeko eta mantentzeko lanak egiteko, eta NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAU da bi sozietate horietako bat.

NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAU, halaber, NATURGAS ENERGÍA taldeko kide da. EDP taldeak, hain zuzen ere, NATURGAS ENERGÍA marka erabiltzen du EAEn. NATURGAS ENERGÍA COMERCIALIZADORA SAU ere marka horretan sartzen da. Azken sozietate horrek, gas naturalaren hornidura eskaintzeaz gain, gas-instalazioak ikuskatzeko eta mantentzeko lanak egiteko zerbitzuak eskaintzen ditu; Funciona deritze zerbitzu horiei⁴.

⁴ Gas naturala kontsumitzaileei eta beste komertzializatzaile batzuei saltzeko edo nazioartean bideratzeko asmoz eskuratzen duten merkataritza-sozietateak hartzen ditugu komertzializatzailetzat.



16.- Gas naturalaren instalazioak eta kontagailuak mantentzeko lanak egiteko eta ikuskatzeko zerbitzuak dira, hain zuzen ere, INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLren sozietate-xedea⁵.

17.- Berogailu-, iturgintza- eta gas-instalazioak dira GUE SAREN sozietate-xedea, eta, zehazkiago, instalazio horien mantentze-lanak⁶.

18.- 2011ko ekainetik aurrera, HIDROCANTABRICO SOLUCIONES COMERCIALES SA arduratzen da zerbitzuen errentamendu-kontratuak izenpetzeaz, hala erabaki baitute Naturgas talde barruko enpresa-hitzarmenen bidez —sozietate hori Naturgas taldeko kide da—.

19.- TOLOSA GASA SA da merkatuan diharduen beste banaketa-enpresa (ebazpen honetan, merkatuak zer egitura duen azaltzeko soilik aipatzen da enpresa hori). NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUK enpresa hori kudeatzen du, eta, horretaz gainera, % 40ko parte-hartzea du enpresa horretan.

B.- UKITUTAKO MERKATUA

20.- Izenpetutako errentamendu-kontratuen xedean jasotako zerbitzuak 2 merkatu aipagarritan sartzen dira, produktuaren edo zerbitzuaren ikuspuntutik. Jarraian, merkatu horiek aztertuko ditugu.

Energia-sektorean, Europako operadore nagusietako bat da EDP Taldea: Iberiar Penintsulako energia-operadore handienetako bat da, eta Portugalgo industria talde handiena. EDP da Iberiar Penintsulako energia-sektoreko enpresa talde bakarra, Portugalen eta Espainian ekoizten, banatzen eta merkaturatzen duena. Horretaz gainera, EDPk kontrolatzen du HC energia elektrikoaren espainiar operadorea. Halaber, EDPk pisu handia du Iberiar Penintsulako gas-sektorean: Espainian, Naturgasen bidez —merkatu horretako bigarren operadorea—, eta, Portugalen, EDPen Gasen bidez —gas-banaketa bigarren enpresa handiena—.

Ukitutako enpresei buruzko informazioa nahi izanez gero,

ikus EDP: <http://www.edp.pt/pt/aedp/unidadesdenegocio/distribucaodeelectricidade/Pages/Distribuciao.aspx>

Naturgas: <http://corporativo.naturgasenergia.com/home/news/notas-prensa/notas-prensa/naturgasNews/naturgasNotaPrensa/5/1/1/725>.

⁵ Iturria: Merkataritzako erregistroa.

⁶ Iturria: SABI datu-basea, bai eta enpresaren beraren zigilua ere: "GASAREN ETA BEROGAILUEN MANTENTZE-LANAK"



a. Gas-banaketaren merkatua

21.- Merkatu horretan, izenpetutako errentamendu-kontratuetan agertzen diren jarduerak sartzen dira; hala nola:

- Gasa jasotzen duten instalazioen administrazio-kudeaketarako eta ikuskapenerako zerbitzua: instalazioak jartzea, aurretiko probak egitea, zerbitzuan jartzea eta geroko aldaketak eta handitze-lanak egitea.
- Gasa jasotzen duten instalazioen administrazio-kudeaketarako eta aldizkako ikuskapenerako zerbitzua.
- FUNCIONA, gasa jasotzen duten instalazioak, etxerakoak, komertzialak eta kolektiboak, mantentzeko lanen kontratuen administrazio- eta merkataritza-kudeaketarako zerbitzua, ekintza hauei dagokienez: hornidura etetea, gas-kontagailua aldatzea hodiak aldatu gabe, hainbat motatako egiaztapenak egitea, eteteak/loturak (ez ordaintzeak)...

Gas naturala banatzen duten enpresak behartuta daude beren langileen edo langile baimenduen bidez aldizkako ikuskapenak egitera, bai eta erabiltzaileei gas-erregaiak kanalizazio bidez hornitzeko zerbitzua ematera ere. Zerbitzu horretan sartzen dira instalazioak lotzeko eta egiaztatzeko zerbitzuak. Zerbitzu horiek, hain zuzen ere, alta-eskubide deritzen zerbitzuen multzoan sartzen dira⁷.

Bestalde, administrazio-baimenek zer eremu hartzen duten, eremu horrek mugatzen ditu, hain zuzen ere, gas-banaketaren merkatu geografikoak. Horrenbestez, banaketa-sare bakoitzak monopolio

⁷ Ildo horretan, aipatzekoa da uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretua, gas-erregaien banaketari eta erabilerari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarri buruzko Arautegi teknikoa onartzen duena. Errege Dekretu horretan (...7.2.1) arautzen dira **aldizkako ikuskapenak**. Errege Dekretu horretan ezartzen denez, 34/1998 Legeko 83. artikulua arabera, banatzaileak bere baliabideak edo kanpokoak erabiliz ikuskatuko ditu, aldizka ikuskatu ere, kanalizazio bidezko banaketa-sareetatik elikatzen diren instalazio hartzaileak. Instalazio hartzaileen zati komuna, hain zuzen ere, banatzaileak ikuskatu beharko du aldizka-aldizka, bere baliabideak edo kanpokoak erabiliz. EAEn, lau urtetik behin egin behar da aldizkako kontrol hori.

Orobat da aipatzekoa abenduaren 27ko 1434/2002 Errege Dekretua, gas naturaleko instalazioen garraioa, banaketa, merkaturatzea, horniketa eta baimen-prozedurak arautzen dituena. 34. artikuluan, "**Gas-instalazioak zerbitzuan jartzea**" aipatzen da, eta ezartzen da dagokion banatzaileak soilik egin dezakeela, bere langileen edo langile baimenduen bidez, hau guztia: instalazio hartzailea eta banaketa- edo garraio-sarea elkarri lotu, neurgailuetan zigitu jarri eta instalazio hartzaileak zerbitzuan jarri.

Amaitzeko, aipa dezagun 135/2008 Dekretua, uztailaren 15ekoa, gasa kanalizazio bidez banatzen duten enpresek erabiltzaileei egiten dizkieten **zerbitzuen kostuak** arautzen dituena. Dekretu horren 2. artikulua dioenez, "Enpresa hornitzaileak jaso ditzaketen diru-kopuruak dira alta-eskubideak, erabiltzaile berri batekin kanalizazio bidezko gas-erregaien hornidura-zerbitzuen prestazioa kontratatzean". Eskubide horiek "hornidura berriei eta dauden horniduren zabalkuntzari aplikatzeko dira, eta horietan sartzen dira instalazioen lotura- eta egiaztatze-zerbitzuak".



natural bat osatzen du, eta dagokion agintaritzak arautzen ditu merkatu horretarako sarbidea eta merkatu horren prezioak⁸.

Horiek horrela, geografiari dagokionez, EAEk bi merkatu aipagarri ditu —jarraian aipatuko ditugu— eta, horietako bakoitzean, gasa banatzeko enpresa baimendu bat. Legeak ezartzen duenez, enpresa horiek aldizkako ikuskapenak egin behar dituzte, bai eta gas-instalazio eta erabiltzaile berriei alta ematearekin lotutako zerbitzuak edo neurgailuak maneiatzea ezinbestekoa den jardurekin lotutako zerbitzuak eman ere (hornidura bertan behera uztea, aldaketak, eteteak, etab.).

Hauexek dira EAEko merkatu aipagarriak:

- EAEko gas-banaketaren merkatuan, NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAU da banaketa-enpresa baimendua, Tolosan izan ezik.
- Tolosako gas-banaketaren merkatuan, TOLOSA GASA SA da banaketa-enpresa baimendua.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan, NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAU eta TOLOSA GASA SA dira bi banaketa-enpresa baimendunak, eta GUE SAK eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLk bi enpresa horiei eskain diezazkiekete beren zerbitzuak; zehazki, aldizkako ikuskapenak egiteko edo banatzaileari atxikitako instalazioak edo ekintzak abiarazteko zerbitzuak.

22.- Hori kontuan hartuta, kontratuan jasotakoa bezalako eksklusibotasun-klausula batek mugatu egingo ditu GUE SAre eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLren aukerak, baldin eta TOLOSA GASA SAK erabakitzen badu NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUren zerbitzuak deuseztatzea edo gas naturalaren beste banatzaile batzuei gasa banatzeko baimena ematen bazaie.

⁸ Ildo horretatik, ikus 34/1998 Legea, urriaren 7koa, Hidrokarburoen Sektorekoa. 91.3 artikuluan ezartzen duenez, "Autonomia-erkidegoek, beren lurraldean jarduten duten banatzaileei dagokienez, alta-eskubideen araubide ekonomikoa ezarriko dute, bai eta erabiltzaileen hornidura-premiei erantzuteko beharrezkoak diren zerbitzuen gainerako kostuen araubide ekonomikoa ere.



b. Banakako instalazioak eta instalazio kolektiboak egiteko eta instalazio horiek kontrolatzeko eta mantentzeko lanak egiteko merkatua.

23.- Merkatu horretan sartzen dira, izenpetutako errentamendu-kontratuetan agertzen diren jarduera hauek: hornidura berriekin edo daudenak handitzeko lanekin lotutako jarduerak, aldizkako ikuskapenak eta Programatutako Laguntza Teknikoaren Zerbitzua. Jarduera horiek honetan dautza:

- enpresa instalatzaileei aholkuak ematean eta gasa jasoko duten instalazio berriak taxutzean.
- administrazio-kudeaketa egitean —administrazio-kudeaketaren barruan ez da kudeaketa teknikoa sartuko, kudeaketa teknikoa beste agente batek egingo baitu—.

Legearen arabera, jarduera horiek ez dagozkie banatzaileei. Horrenbestez, ez dira sartzen aurreko atalean definitu ditugun merkatu aipagarrietan; aitzitik, banakako instalazioak eta instalazio kolektiboak egiteko eta instalazio horiek kontrolatzeko eta mantentzeko lanak egiteko merkatuari dagozkio⁹.

Merkatu hori zatikatua eta sarbide errazekoa da, eta tokian tokikoa da, kontuan hartu behar baitugu lanak tokian-tokian eta berehala egin behar direla, bai eta lan horiek zuzendu eta ikuskatu egin behar direla ere.

24.-Horrenbestez, errentamendu-kontratuetan jasotako eskusibotasun-klausulak mugatu egingo luke GUE SAK eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLk merkatu horretan duten parte-hartzea; zehazki, ezingo lukete lan egin *NATURGAS ENERGÍA*, *HC ENERGÍA* edo/eta *EDP* taldekoak ez diren enpresetan.

⁹ Ikus 2004ko urriaren 4ko Ebazpena, Lehiaren Babeserako Auzitegiarena, Zehapen Espedientea 570/2003 Espedientea, GAS EXTREMADURA (esp. 2295/2011 zerbitzua).



III.- ZUZENBIDE-OINARRIAK

25.- Desegindako LDEZek ebazpen-proposamena igorri zion desegindako LDEAri, ebatz zezan. Edonola ere, ebazpen hau eman den egunean eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren 1/2012 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, LDEA deseginda dago; zehazki, Lehiaren Euskal Agintaritza abian jartzean desegin zen, hots, 2012ko uztailaren 17an. Hori dela eta, 1/2012 Legeko bigarren xedapen iragankorrean eta 10.a artikuluan ezarritakoaren arabera, Lehiaren Euskal Agintaritzari dagokio LEKen bidez zehapen-prozedurak ebaztea.

26.- Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 52. artikulua ezartzen duenez, “Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta, debekatutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleek konpromiso batzuk hartzea proposatzen badute, eta horien bidez espedientea irekitzea eragin duten jokaerek lehian zituzten ondorioak konpontzen badira eta interes publikoa behar beste bermatzen bada. Konpromiso horiek lotesleak izango dira eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean jasotzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak. Prozedura ezin izango da artikulua honetan zehazten den moduan amaitu, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 50.4. artikuluan aurreikusitako proposamen-txostena aurkeztu eta gero.”

27.- Desegindako LDEZek bere ebazpen-proposamenaren bidez jakinarazi duenez, 01/2012 zehapen-prozedura (lehenengo konpromisoak) hitzarmen bidez amaitze aldera aurkeztutako konpromisoek hautemandako lehia-arazoak konpontzen dituzte (konpromiso horiek ebazpen-proposamenarekin batera bidali zitzaizkion desegindako LDEAri).



28.- Kontseilu honek orain aztertu dituen konpromiso berriek jaso, aipatutako sozietateak hasieran aurkeztutako konpromisoak jasotzen dituzte, bai eta osatzen ere, eta, besteak beste, behartu egiten dute HIDROCANTABRICO SOLUCIONES COMERCIALES SA konpromiso horiek hartzera; izan ere, 2011ko ekainaz gero, HC/NATURGAS taldearen baitan, sozietate hori arduratzen da zehapen-prozedura honen aztergai diren zerbitzuen errentamendu-kontratuak izenpetzeaz.

29.- Lehiaren Euskal Kontseiluak kontuan hartu ditu kontratuak, konpromiso berriak eta aldeek eginiko alegazioak, eta ondorioztatu du zehapen-prozedura hitzarmen bidez amaitze aldera proposatutako konpromiso berrien edukia egokia dela hautemandako lehiaren aurkako mugak gainditzeko. Hori ondorioztatzeko, kontuan hartu dugu konpromiso horien bidez ezabatu egiten dela GUE SAK eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLk NATURGASekin eta HIDROCANTABRICO SOLUCIONES COMERCIALES SArekin duten eksklusibotasun-harreman oro. Azken sozietate hori arduratzen da, gaur egun, zerbitzuen errentamendu-kontratuak izenpetzeaz.

30.- Edonola ere, konpromiso horiek egokiak izan daitezzen eta hautemandako lehia-mugak ezaba daitezzen —eta konpromiso horiek eraginkortasunez bete daitezzen—, ukitutako enpresek beren webgunean argitaratu beharko dituzte, interesdunek erraz ikusteko moduan eta karaktere irakurterrazekin. Argitaratzeko betebeharra, hain zuzen ere, banaketa- eta merkaturatze-lanetan kolaboratzaile direnentzako edo ebazpen honen betearazpen-aldian antzeko zeregina dutenentzako esteka hauen bidez beteko da:

- <http://www.naturgasenergia.com/home/colaboradores/>

- <http://distribuidora.naturgasenergia.com/>

Konpromisoak, gutxienez, **hamabi hilabetez** egongo dira webgunean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita. Konpromisoak, gehienez ere, hilabeteko epean



argitaratu beharko dira, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita.

31.- Halaber, auzi honek uki ditzakeen herritarrak eta enpresak jakinaren gainean jartze aldera, HIDROCANTABRICO SOLUCIONES COMERCIALES SAK eta NATURGAS ENERGIA DISTRIBUCIÓN SAUK ohar bat argitaratuko dute, batera edo bakoitzak bere aldetik, EAEko informazio orokorreko bi egunkari zabalduenetan, zehapen-prozedura hitzarmen bidez amaitu dela jakinarazteko. Oharretan, eksklusibotasun-klausula debekatu dela aipatu beharko da, eta enpresen webguneetara jotzeko eta konpromisoak osorik ikusteko estekak jaso.

Ohar horiek, gehienez ere, hilabeteko epean egin beharko dira, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita.

32.- 261/2008 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 39.7 artikuluari jarraituz, zehapen-prozedura bat hitzarmen bidez amaitzen duen ebazpen batean bildutako konpromisoak eta betebeharrak ez betetzea oso arau-hauste larritzat hartuko da, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 64.4.c artikuluan ezarritakoaren arabera. Halaber, gerta daiteke hertsatze-isunak ezartzea eta, hala badagokio, zehapen-espeditente bat irekitzea Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1., 2. edo 3. artikulua urratzeagatik.

Horregatik guztiagatik, Lehiaren Euskal Kontseiluak, honako hau

IV. EBATZI DU:

LEHENENGOA.- Zehapen-prozedura hau hitzarmen lotesle baten bidez eta ebazpen honen eranskin bakarrean ezarritako baldintzen arabera amaitzea, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren babesean.



BIGARRENA.- Konpromisoak NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUren webgunean argitaratu beharko dira, ebazpen honetan ezarritako modu eta baldintzetan.

HIRUGARRENA.- HIDROCANTABRICO SOLUCIONES COMERCIALES SAK eta NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUk ebazpen honen berri eman beharko dute prentsa idatziaren bidez, ebazpen honetan ezarritako modu eta baldintzetan.

LAUGARRENA.- Ikerketa Zuzendaritzak ziurtatu beharko du zehapen-prozedura hitzarmen bidez amaitzen duen ebazpen hau betetzen dela.

Jakinarez bekie ebazpen hau Ikerketa Zuzendaritzari eta interesdun guztiei, eta aditzera eman bekie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2012ko urriaren 11n.

LEHENDAKARIA
MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
IBON ALVAREZ CASADO

MAHAIKIDEA
NATIVIDAD GOÑI URRIZA

MAHAIKIDEA
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA



ERANSKINA

NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUren KONPROMISOEN PROPOSAMENA

LEHENENGO KONPROMISOA.

15. baldintza orokorra ezabatzea.

Lehenengo konpromiso gisa proposatzen dugu erabat ezabatzea 15. baldintza orokorra, HIDROCANTÁBRICO SOLUCIONES COMERCIALES SLk espediente honen aztergai diren zerbitzuak emate aldera izenpetzen dituen kontratuena. Horrela, balizko kontraesanak amaituko dira baldintza horrek gaur egun duen edukiaren eta kontratuei aplikatzekoak diren baldintza partikularren artean; zehazki, HIDROCANTÁBRICO SOLUCIONES COMERCIALES SLren, GUE, SAren eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLren artean izenpetzen diren kontratuei aplikatzekoak diren baldintza partikularren artean.

BIGARREN KONPROMISOA.

Etorkizunean, ez sartzea eskusibitate-klausularik, NATURGASEk GUE SArekin eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLrekin izenpetutako zerbitzuen errentamendu-kontratuen 1. eranskineko "Beste baldintza batzuk" atalean jasotako antzekorik.

NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUK eta HIDROCANTÁBRICO SOLUCIONES COMERCIALES SLk konpromisoa hartu dute etorkizunean EAEn izenpetzen dituzten kontratuetan, alegia, ebazpen honen aztergai diren gas-instalazioak ikuskatzeko zerbitzuak —ebazpen honen aztergai diren horiek— ematearekin lotutako kontratuetan, ez sartzea eskusibotasun-klausularik, NATURGASEk GUE SArekin eta INSPECCIONES Y SERVICIOS DEL GAS SLrekin izenpetutako zerbitzuen



errentamendu-kontratuen 1. eranskineko "Beste baldintza batzuk" atalean jasotako antzekorik.

Zalantzarik egon ez dadin, hona hemen aipatutako kontratu horietako eskusibotasun-klausula:

"Eskaintzan, eskaintza-egileak argi adieraziko du konpromisoa hartzen duela zerbitzu horietan eskusibotasunez lan egiteko Naturgas Energía, hc energía edo/eta EDP taldeko enprekin, enpresa horiek gaur egun duten jardun-eremuan. Baldintza hori izan ezean, eskaintza ez da onartuko. Etorkizunean aurreko sozietateen eskumeneko sozietateetako batekin hemen jaso ez dugun jardueraren batean lan egiten badu, oniritzia eskatu beharko dio Naturgas Energía, eskaintza aurkeztu edo kontratazioa egin aurretik. Hori ez egiteak kontratua desegitea ekar dezake."

HIRUGARREN KONPROMISOA.

Kontratuei dagokien gehigarria aurkeztea, hiru hileko epean, gehienez ere.

NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAUK eta HIDROCANTÁBRICO SOLUCIONES COMERCIALES SLk konpromisoa hartu dute LDEZi igortzeko HIDROCANTÁBRICO SOLUCIONES COMERCIALES Y GUE SAre eta INSPECCIONES y SERVICIOS DEL GAS SLen artean izenpetzen diren kontratuei dagokien gehigarria, lehenengo konpromisoan jasotako aldaketak eginda, gehienez ere hiru hileko epean, LDEAk prozedura hau hitzarmen bidez amaitze aldera ematen duen ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita.



LAUGARREN KONPROMISOA.

**Konpromisoak lotesleak dira NATURGASentzat eta
HIDROCANTÁBRICO SOLUCIONES COMERCIALES
SLrentzat.**

Konpromiso horiek lotetsi egingo dituzte NATURGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAU eta HIDROCANTÁBRICO SOLUCIONES COMERCIALES SL. Izan ere, idazki hau bi konpainia horietako ordezkariak izenpetu dute; hain zuzen ere, idazki hau izenpetzeko ahala duten ordezkariak.